

2024ko HAURRENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

Iruñeko Udalak 2024ko HAURRENDAKO LITERATUR LEHIAKETARAKO deia egin du, norgehiagokako araubidean, Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak (2006ko 21. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua, otsailaren 17koan) xedatzen duenarekin bat.

1.-XEDEA.-

2024ko HAURRENDAKO LITERATUR LEHIAKETA:

Lehiaketaren xedea da Iruñean erroldatuta dauden 6 eta 14 urte bitarteko haurrek edo haien ikastetxea Iruñean duten Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako Lehen Zikloko ikasleek egindako lanik onenak saritzea. Egileek lan bana aurkezten ahalko dute modalitate bakoitzeko, gai librean –euskaraz edo gaztelaniaz idatzita–, eta jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan beharko dute. Ikastetxe bereko ikasleek egindako talde-lanak aurkezten ahalko dira. Lan bera ezin izanen da bi hizkuntzetan aurkeztu. Aurkeztutako lanek ezin izanen dute ez bultzatu ez erreproduzitu jarrera diskriminatzaile, xenofobo edo sexistarik, ezta pertsonen duintasunaren eta giza eskubideen kontra doanik ere

2.- SARI-MODALITATEAK.-

Honako sari-modalitate hauek ezarri dira:

(Bai euskararako, bai gaztelaniarako)

IPUINEN MODALITATEA:

A KATEGORIA: Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailak.

B KATEGORIA: Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailak.

C KATEGORIA: Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailak.

D KATEGORIA: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarrena mailak.

KOMIKIEN MODALITATEA:

A KATEGORIA: Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailak.

B KATEGORIA: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarrena mailak.

3.- DIRU-ZUZKIDURA.-

Deialdi honi, gehienez ere, 8.400 euro esleituko zaizkio sarietarako, Udalaren Aurrekontuko honako partida honen kargura:

81/32630/480000

Gehieneko aurrekontu-kontsignazio horretatik, 4.200 euro euskarazko lanak saritzeko izanen dira, eta beste 4.200 euro, gaztelaniazko lanak saritzeko.

Sari hauek ezarri dira modalitate bakoitzerako, 2. klausulan adierazitakoaren arabera:

-Lehen saria: 200 euro eskola-materialetan, lan irabazlea aurkezten duen egilearendako, eta 250 euro eskola-materialetan, ikaslea zein ikastetxetan matrikulatuta egon eta horrendako.

- Bigarren saria: 150 euro eskola-materialetan, egilearendako.

- Hirugarren saria: 100 euro eskola-materialetan, egilearendako.

Lehen sariaren irabazleak Iruñetik kanpo dagoen ikastetxe batean ikasten badu, ikastetxeak ez du jasoko dagokion eskolako material-sorta.

Saritutako lana hainbat egilek egin badute, sarien zenbatekoa ez da aldatuko, hau da, taldeak emandako sariari dagokion zenbatekoko txartel bakarra jasoko du.

Eskolako material-sorta txartel baten bidez jasoko da, eta hori sariak zenbat jo eta horrenbestekoa izanen da. Txartel hori saridunak aukeratutako eskola-materialaren truke izanen da, txartelean bertan aipatzen diren dendetan. Txartela trukatzeko epea lau hilabetekoa da, hura noiz jaulkitzen den eta hortik aitzina. Txartela ez bada adierazitako epean erabiltzen, osorik edo hein batean, Iruñeko Udalak ulertuko du saridunak uko egin diola saria hartzeari edo trukatu gabe utzitako kopuruari.

Saria emanda, Iruñeko Udalak egilearengandik eskuratuko ditu, berarendako bakarrik eta mundu-mailan, saritutako lan bakoitzari dagozkion jabetza intelektualeko eskubide ekonomiko guztiak; orobat, lan horiek erreproduzitu, banatu, jendaurrean paratu eta eraldatzen ahalko ditu, libreki eta ezer gehiago ordaindu gabe, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen Testu Bateginaren 26. artikulua ezarritako epearen barruan. Eskubidea izanen du, baita ere, lana gaur ezaguna den edo geroan asmatzen ahal den beste edozein bitarteko edo euskarri ukigarri edo ezin ukitukotan aurkezteko. Horrek barne hartzen ditu ustiatzeko modalitateak oro, hau da, lana edozein euskarri edo formatutan erreproduzitzekoa, lana banatzeko eta jendaurrean paratzeko eskubideen barruan, mundu osoko merkatuan ustiatzeari begira. Eskubide horien artean, berariaz daude sarturik hala lanak online igorri eta zabaltzea nola Internet erako sare digital elkarreragileetan eskura jartzea.

4.- HAUTAGAIEN BETEKIZUNAK.-

Lehiaketan parte hartzen ahalko dute bizitokia edo ikastetxea Iruñean duten 6 eta 14 urte bitarteko haurrek (Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako Lehen Zikloko ikasleek).

Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan xedatutakoarekin bat, laguntza hauen izaera berezia dela-eta onuradunei aplikagarri zaizkie arau horretan ezarritako debekuak:
 BAI EZ

5.- ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK, non eta zein epetan.-

LANAK INTERESDUNEK EDO IKASTETXEEK AURKEZTUKO DITUZTE, PAPEREAN.
Parte hartzeko eskaera helbide honetara bideratuko da:

Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorra, Descalzos k. 72. 31001 Iruña.

Halaber, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako bideetako edozein erabiltzen ahalko da.

Lana aurkezteko epea deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den unetik aurrera hasiko da, eta 2024ko apirilaren 26an amaituko da.

Aurkeztu beharreko lanen luzera honako hau izanen da:

IPUINEN MODALITATEA:

A kategoria (Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailak): 2 orri gehienez ere, alde bakar batez idatziak, ilustrazioak barne.

B kategoria (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak): 3 orri gehienez ere, alde bakarrean idatziak,

ilustrazioak barne.

C kategoria (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak): 4 orri gehenez ere, alde bakarrean idatziak, ilustrazioak barne.

D kategoria (DBHko 1. eta 2. mailak): 6 orri gehenez ere, alde bakarrean idatziak, ilustrazioak barne.

KOMIKIEN MODALITATEA:

A kategoria (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak): 3 orri gehenez ere (azala kanpo), alde bakarrean idatziak, DIN A-4 formatukoak edo horren pareko neurrikoak.

B kategoria (DBHko 1. eta 2. mailak): 4 orri gehenez ere (azala kanpo), alde bakarrean idatziak, DIN A-4 formatukoak edo horren pareko neurrikoak.

Gaia librea izanen da, eta lanek jatorrizkoak izan behar dute, ez-itzuliak, eta euskaraz edo gaztelaniaz idatziak. Lan bera ezin izanen da bi hizkuntzetan aurkeztu.

Lan bakoitza identifikaziorik gabeko gutun-azal batean aurkeztu beharko da, honako hau idatzita:

IRUÑEKO UDALAREN HAURRENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

HIZKUNTZA:

LANAREN MODALITATEA:

ZEIN KATEGORIATARA AURKEZTEN DEN:

LANAREN IZENBURUA:

EGILEAREN EDO TALDEAREN IKURRITZA EDO IZENORDEA:

Gutun-azalaren barnean, lanaz gain, beste gutun-azal bat sartuko da, itxita, egilearen ikurritzaz edo izenordeaz errotulatu, non egilearen datu hauek sartuko baitira: izen-abizenak, helbidea, telefonoa, ikasmila eta ikastetxea. Lana talde-lana bada, egilekide bakoitzaren datu pertsonalak agertuko dira, arestian aipatutako datuak.

Saririk jasotzen ez duten lanak Udalaren bulegoetan berreskuratzen ahalko dira, ebazpena argitaratu eta bi hilabeteko epean. Epe hori igarota, Udalak jaso ez diren lanak suntsitzen ahalko ditu, betiere ebazpenaren kontrako errekurtsorik aurkeztu ez bada.

6.- EPAIMAHAIA.-

Epaimahaia Iruñeko Udalak izendatuko du, eta honako hauek osatuko dute:

- Epaimahaiburua: Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Zinegotzi Ordezkaria.

Ordezkoa: Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko zuzendaria.

Gaztelaniazko lanetarako:

- Epaimahaikideak:

- Lehen Hezkuntzako Hizkuntza-irakasle bat, Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko zinegotzi ordezkariak izendatua.

- Bigarren Hezkuntzako Hizkuntza-irakasle bat, Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko zinegotzi ordezkariak izendatua.

- Haur-literaturako aditu bat, Kulturako, jaietako Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko zinegotzi ordezkariak izendatua.

- Komikien edo arte-adierazpenaren arloko espezialista bat, Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko zinegotzi ordezkariak izendatua.

-Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko teknikaria.

- Idazkaria: Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko zinegotziak izendatutako administrari bat.

Euskarazko lanetarako:

- Epaimahaikideak:

- Lehen Hezkuntzako Hizkuntza-irakasle bat, Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko zinegotzi ordezkariak izendatua.

- Bigarren Hezkuntzako Hizkuntza-irakasle bat, Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko zinegotzi ordezkariak izendatua.

- Haur-literaturako aditu bat, Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko zinegotzi ordezkariak izendatua.

- Komikien edo arte-adierazpenaren arloko espezialista bat, Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko zinegotzi ordezkariak izendatua.

-Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko teknikaria.

- Idazkaria: Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko zinegotziak izendatutako administrari bat.

Bi epaimahaiak irizpide berberekin bat jardunen dira, eta horiek 9. apartatuan ezarritakoak izanen dira. Lehiaketara lan asko aurkeztu direlako beharrezkoa balitz, bi epaimahaietan kide bat edo gehiago erants daitezke, lanak arinago irakurri eta zuzentze aldera.

Epaimahaiak organo eskudunari, hau da, Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko zinegotzi ordezkariari, aurkeztuko dio sari-proposamena, horrek sari-ematearen gainean ebatz dezan. Modalitate guztietan, edozein sari eman gabe uzten ahalko da, baldin eta epaimahaiaren iritziz ezein lanek ez badu behar adinako meriturik edo kalitaterik.

Epaimahaiak accesiten bat proposatzeko aukera: BAI EZ

Salbuespen gisa, kategoria bakoitzeko accesit bakarria ematen ahalko da, inolako diru-sari edo gauzazko saririk gabekoa.

7. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.-

Iruñeko Udala da arduradun botere publikoetz baliatuz dirulaguntza kudeatzeko eta saria emateko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Ez da daturik lagako legeak hala aginduta izan ezik. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira– eta horiek ezabatzeko Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Datuen tratamendu-zerrenda eta informazio osagarria www.pamplona.es/eu webgunean kontsultatzen ahal dituzu.

Sari-banaketaren irudiak Udalaren webgune korporatiboan eta sare sozialetan argitaratzen ahalko dira, eta hainbat komunikabidek zabaltzen ahalko dituzte.

8.- EBATZI ETA JAKINARAZTEKO EPEA.-

Ebatzi eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izanen da, gehienez ere. Epea deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hortik aitzina hasiko da kontatzen.

Instrukzio-organoa dirulaguntza hau kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa izanen da.

Sariak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean aurreikusitakoarekin bat.

Ebazpena argitaratzeko beharra: BAI EZ

Baiezkoa bada, non argitaratu:

Iruñeko Udalaren iragarki-taulan eta egoitza elektronikoan.

9.- KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK.-

Lehiaketaren epaia emateko aplikatuko diren irizpideak ikasleek ikasturte bakoitzean egiten dituzten ebaluazio-probetan baloratzen diren berberak dira, hau da:

- aurkezpena eta ortografia
- istorioaren koherentzia eta egitura; pertsonaiak nola sortu eta tratatzen diren.
- gramatika-zuzentasuna eta hiztegi aberatsa.
- originaltasuna eta sormena; egiantzekotasuna.
- beste zenbait alderdi (literaturazkoak eta literaturaz kanpokoak).
- komikien hizkuntzako beste zenbait baliabide.

Epaimahaia izanen da aurkeztutako lanen balorazioari dagokion edozein gorabehera edo erreklamazio ebazteko organo eskuduna.

Iruñeko Udalaren Berdintasuneko Ordenantzaren 34. artikuluan ezarritakoarekin bat, epaimahaiak kontuan hartuko du aurkeztutako lanetan genero-ikuspegia txertatzea.

31/2022 Foru Legean ezarritakoaren arabera, bai Epaimahaiak, bai jarduera eskola-ordutegian sartzen duten ikastetxeek, pertsona guztientzako irisgarritasun unibertsala eta diseinua sustatuko dute, desgaitasuna duten haurren benetako parte-hartze eraginkorra sustatze aldera.

Saritu gabeko lanak berreskuratzen ahalko dira Iruñeko Udaleko Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorrean (Descalzos kalea 72, 3. solairua), ebazpena argitaratu eta bi hilabeteko epean.

10.- ERREKURTSOAK.-

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar haien lanekin parte hartzen dutenek oinarriak onartu eta horiei men egitea.

Lehiaketa honen garapenaren eta oinarri hauen interpretazioaren inguruko gatazkak oro organo emaileak ebatziko ditu.

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko hartzen ahal diren administrazio-ebazpenen aurka errekurtsu hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsua, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.

- Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.